



## **AIARAKO UDALAK 2021eko ABENDUAREN 23an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

### **PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera  
jauna

Susana Martín Benavides andrea

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hogeitahiruan, hemezortziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko, modu telematikoan. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **EZ DA BERTARATU:**

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos andrea



Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko azaroaren 18an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta**

Ez da iruzkinik egin, eta bertaratutako kideek akta aho batez onetsi dute (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 9).

**2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaz-hitzarmena 2021ean Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko; horretarako dirulaguntza zuzena emango da.**

Udalbatzari kontu eman zaio puntu honi dagokion 2021eko abenduaren 14ko Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Inmigrazioa Batzordearen eta Adinekoen Batzordearen aldeko irizpena.

Ez da iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 9).

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Alday Ongintzako Fundazioak adinekoak zaintzeko laguntza-funtzioa betetzen duela Arespalditzako instalazioetan, eta, 2009az geroztik, bere gain hartzen duela Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak Aiara udalerrian zerbitzu horri jarraipena emateko duen interesa.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaz-hitzarmenaren proposamena, 2021ean Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko.



**IKUSI DA.-** 2021eko abenduaren 14ko Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Inmigrazioa Batzordearen eta Adinekoen Batzordearen aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2021erako udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Udalbatza Osoak aho batez honako hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena onestea, 2021ean Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko. Honako hau dio:

**“AIARA-AYALAKO UDALAREN ETA ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN PROPOSAMENA, 2021EAN ARESPALDITZAKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATU ETA MANTENTZEKO.**

*Arespalditzan, 2021eko abenduaren (e)(a)n.*

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

*Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA, AIARA-AYALAKO (Araba) Udaleko alkate-udalburu jauna, egunean egindako ohiko bilkuran hitzarmen hau sinatzeko ahalmenarekin.*

*Beste aldetik, José Ramón GONZALEZ MENDIA, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOKO presidentea, fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz, hitzarmen hau sinatzeko ahalmenarekin.*

*Naiara LAZPITA MARCOS andreak, Aiarako Udaleko idazkaria naizen aldetik, egintzaren fede eman dut.*

*Bi aldeek beren karguei dagozkien atribuzioak eta eskumenak erabiliz, agiri hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako*

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**Lehenengoa.-** ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK adinekoak zaintzeko laguntza-funtzioa betetzen duela Arespalditzako instalazioetan.

*2009az geroztik, bere gain hartzen duela Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua.*



**Bigarrena.-** Zerbitzuari jarraipena emateko, honako klausula hauen arabera sinatu dute hitzarmena:

### **KLAUSULAK**

**Lehenengoa.-** Agiri honen xedea da, alde batetik, Alday Ongintzako Fundazioak bere gain hartzen dituen konpromisoak finkatzea, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduagatik, guztira 14 plaza aldi berean erabiltzeko edukierarekin. Udalak 10 plaza itundu ditu gaur egun Arabako Foru Aldundiarekin. Bai eta Alday Ongintzako Fundazioak lan hori bere gain hartzeagatik Udalak emandako kontraprestazioa ere, hitzarmen honen bidez gauzatutako zuzeneko dirulaguntza baten bidez.

**Bigarrena.-** Alday Ongintzako Fundazioak zentroa eta bertan egiten den jarduera kudeatzeko konpromisoa hartu du, Aiarako Udalaren Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzen duen Udal Araudiaren arabera (ALHAOn argitaratua, 77. zk., 2021eko uztailaren 12koa). Hala ere, indarrean dagoen arau-esparruaren barruan egingo da, Gizarte Zerbitzuen Sailak ezarritako helburu eta printzipio informatzaileekin. Arabako Foru Aldundia, adinekoentzako titulartasun publikoko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko.

**Hirugarrena.-** Alday Ongintzako Fundazioak adinekoen aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzeko erabiliko du Eguneko Arretarako Landa Zentroa, eguneroko bizitzako jardueretan laguntzeko. Era berean, konpromisoa hartzen du zentroan obrarik ez egiteko eta bere instalazioak edo horien zati bat hitzartutakoaz bestelako erabilera baterako ez erabiltzeko, Aiara-Ayalako Udalak alde zurretik onetsi gabe.

**Laugarrena.-** Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du, hitzarmen honek irauten duen bitartean, tratatutako pertsonen kopuruaren, profilararen eta emandako zerbitzuen arabera behar beste langile bideratzeko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren funtzionamendu egokirako, bai eta zentro horren kudeaketa ekonomikoa garatzeko ere.

**Bosgarrena.-** Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen du, bere printzipio orokorren artean, erantzun publikoarena, botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dutela. Halaber, zioen adierazpenean adierazten du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera hurbildu ahala gertatzen diren aldaketa sozialei egokitu behar zaizkiela gizarte-zerbitzuak. Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta 2010ean onetsitako Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako III. Foru Planean ezarritako



*xedapenak; eta konpromisoa hartzen dute genero-ikuspegia integratzeko neurriak ezartzeko, bereziki hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko, sexuaren arabera bereizitako datuak bildu eta aurkezteko eta hitzarmen honen babesean egiten diren jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua sartzeko.*

*Era berean, Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du Aiara-Ayalako Udalari programak gauzatzean eta horretarako izendatutako langileengan sortzen den edozein aldaketa jakinarazteko, baldin eta Alday Ongintzako Fundazioak ematen duen laguntza-zerbitzuan eragina izan badezake. Alday Ongintzako Fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroaren funtzionamenduari eta kudeaketari dagokionez beharrezkoa den dokumentazio justifikatua aurkeztuko du. Edonola ere, hitzarmen hirretan edozein aldaketa badago, alderdi bien aurretiazko eta berariazko baimena jaso behar da. Udalak Arabako Foru Aldundiarekin Eguneko Arretarako Landa Zentroari buruz sinatu duen hitzarmenean aldaketaren bat badago, Alday Ongintzako Fundazioari jakinaraziko zaio, beharrezkoak diren aldeketak egiteko, aldeak ados jarri ondoren. Zerbitzuak genero-ikuspegia txertatuko du bere programazioan eta jardueretan, eta, bereziki, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo du, emakumeak eta gizonak duintasunean eta eskubideetan berdin gisa aurkeztuko ditu, eta genero-roleri eta -estereotipoei buruzko gogoeta txertatuko du eguneroko jardueretan.*

**Seigarrena.-** *Aiarako Udala ez da inola ere hitzarmen hau gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen lan-betebeharren erantzule izango, Alday Ongintzako Fundazioaren ardura eskusiboa izango da, enplegatuen eta, bidezkoa bada, Alday Ongintzako Fundazioarekin lan-harremanen bat duten pertsonen lan-harremanari eta lan-antolamenduari buruzko guztia.*

**Zazpigarrena.-** *Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen hasiera-hasieratik eta indarraldi osoan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean, bai eta Aiara-Ayalako Udalarekiko beste diru-laguntza batzuk itzultzeagatiko betebeharrak egunean izatekoa ere. Halaber, adierazten du ez dagoela sartuta indarreko legedian aurreikusitako debekuetakoren batean.*

**Zortzigarrena.-** *Aiara-Ayalako Udalak, Lehen Mailako Arretako Udal Gizarte Zerbitzuaren bitartez, aurkeztzen diren eskabideak jasoko ditu, eta dagokion administrazio-espeditentea izapidetuko du.*

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen barruan ezarritako batzorde batek baloratuko ditu eskabideak, bai eta pertsonak sartzeko lehentasun-ordena ezarriko du ere. Honako hauek osatuko dut batzorde hori: Zuzendariordea, gizarte-koordinatzailea eta gizarte-arloko gizarte-langilea.*



*Pertsonak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hautatuko ditu, eta udalerrian bizi diren pertsonen lehentasuna izango dute. Hori horrela izango da puntuazio berdineko egoeretan salbuespenezko inguruabarririk gertatzen ez bada, Aiara-Ayala udalerrian egoitza dutenei lehentasuna eman behar zaie. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari prezio publikoa ordaindu beharko diote, une bakoitzean indarrean dagoen prezio publikoak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera. Horretarako, dagokion ebazpena emango da.*

**Bederatzigarrena.-** *Erabiltzaileak Eguneko Arretarako Landa Zentrora eramateko garraioa ez da hitzarmen honen xedea, Alday Ongintzako Fundaziotik eta Udaletik kanpoko beste erakunde batek kudeatzen baitu.*

**Hamargarrena.-** *Zentroaren kudeaketari eta funtzionamenduari dagokion gastu-aurrekontua 2021erako Udal Aurrekontuan hasieran izendatutako 72.000,00 eurokoa izango da hitzarmen honen indarraldirako. Aiara-Ayalako Udalak finantzatuko du zenbateko hori, 2021erako aurrekontuko 231.481007 partidaren kargura.*

*Aiarako Udalak konpromisoa hartu du aipatutako aurrekontu-partida handitzeko, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketagatik gastu handiagoa bere gain hartu ahal izateko behar den kopuruan, betiere Alday Fundazioak behar bezala justifikatzen badu gehikuntza hori. Zerbitzua behar bezala emateari eragiten dioten ustekabeko inguruabarrengatik, eta Aiarako Udaleko gizarte-laguntzailearen oniritziarekin.*

**Hamaikagarrena.-** *2021. urteari dagokion kontraprestazioaren ordainketa Alday Ongintzako Fundazioak gastu guztien faktirak Udalean aurkezten dituenegand egingo da, legez ezarritako datu eta baldintza guztiekin (honitzailearen izena eta IFK, Alday Fundazioaren izena eta IFK, fakturaren zenbakia eta data, prestazioaren xedea, zenbatekoa eta BEZa banakatuta), langileen kostuari buruzko egiaztagiriak, hilabete bakoitzaren amaieran; beraz, ordainketak hileroko egingo dira.*

*Ondoren zerrendatzen diren gastuetarako honako kontzeptu eta/edo kopuru hauek egotzi beharko dira, aurkezten den justifikazioa baliozkotzat jo dadin:*

- **Elikadura-kostua:** *Alday Ongintzako Fundazioak kudeatzen duen egoitzan lan egiten duen sukaldariaren soldaten eta gizarte-aseguruen kostuaren % 20 egotziko da, Egoitza-zerbitzurako eta Eguneko Arretarako Landa Zentrarako partekatutako langileak direlako. Halaber, elikagaien kostua justifikatzeko, 6,18 € emango dira menu bakoitzeko, bai erabiltzaileena, bai zerbitzua ematen duen gerokultorearena, hilean zerbitzua ematen den egunengatik.*

- **Gestoria-kostua:** *Alday Ongintzako Fundazioak gestoria kontzeptuan duen kostuaren % 15 egotziko da, Fundazioak ere ematen duen egoitza-zerbitzuarekin partekatutako kostua delako.*



- Erantzukizun Zibileko aseguruak: Erabiltzaile-kopuruaren eta gerokultorearen zati proportzionala egotziko da Alday Ongintzako Fundazioak kudeatutako bi zerbitzuetako (Egoitza + Eguneko Zentroa) erabiltzaile kopuru osoari dagokionez, bi zerbitzuetarako partekatutako kostua delako.
- Animatzaile soziokulturalaren/gizarte-langilearen kostua: Alday Ongintzako Fundazioak kudeatzen duen egoitzan lan egiten duen animatzaile soziokulturalaren/gizarte-langilearen soldaten eta gizarte-aseguruen kostuaren % 11 egotziko da, Egoitza-zerbitzurako eta Eguneko Arretarako Landa Zentrorako partekatutako langileak direlako.
- Zuzendariaren dokumentu-kudeaketaren kostua: Alday Ongintzako Fundazioak kudeatzen duen egoitzan zerbitzuak ematen dituen zuzendariaren soldaten eta gizarte-aseguruen kostuaren % 10 egotziko da hileroko, Fundazioak bere gain hartu baitu zerbitzua kudeatzeko ardura, eta Egoitza-zerbitzurako eta Eguneko Arretarako Landa Zentrorako partekatutako langileak direlako.
- Lokalaren erabilera: AFaren balorazioaren arabera (210.650,92 euroren % 2 urtean, hau da, 4.213,02 euro urtean (351,09 euro hilean); horietatik Aldundiak 3.370,42 euro ordainduko ditu eta Udalak 842,60 euro.

Funtzionamendu- eta mantentze-gastuak ere diruz lagundu ahal izango dira, besteak beste: elektrizitatea, telefonoa, garbiketa, kontsumigarriak (inprimagailuena, farmazia, burdindegia, garbiketa, etxeko tresneria...), norbera babesteko ekipiak, egunkariak (1 egunero astelehenetik ostiralera), aisiialdirako materiala etab.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (Aiarako Udaleko gizarte-langileak) Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztutako dokumentazioaren aldeko txostena egin ondoren.

Txostena aldekoa ez bada, egindako ordainketa guztiak behar bezala justifikatu ez direlako, gizarte-langileak Alday Ongintzako Fundazioak egiaztatu beharreko kontzeptua edo kontzeptuak adierazi beharko ditu, partida zehatz horretarako idatzi beharreko txostenaren barruan.

**Hamabigarrena.-** Hitzarmenaren indarraldia eta haren luzapen bakoitza amaitzean, eta betiere 2022 ekitaldiko urtarrilaren 10a baino lehen, Alday Ongintzako Fundazioak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Gauzatutako ekintzen deskripzio-memoria, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta horien ebaluazioa adierazita, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren xedera bideratutako ekintzak espezifikoak barne, eta datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuta.





- Jaso ondoren, Aiarako Udaleko gizarte-langileak berrikusi egingo du, eta hurrengo ekitaldirako jarraibideak ezarriko ditu.*
- *Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, gastuen eta diru-sarreraren zerrenda zehatzarekin.*
  - *Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza guztien adierazpena erakunde publiko zein pribatuak izan. Inprimakia erantsi da, bete dadin.*
  - *Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean egotearen ziurtagiria, edo elkarteko presidentek sinatutako baimena, Udalak erakunde horiei aipatutako ziurtagiriak eska diezazkien.*
  - *Zentroko langileen soldata-kostuei buruzko dokumentazio hau (gerokultorea, sukaldaria, zuzendaria eta gizarte-langilea): TC-1 eta TC-2ren kopia, dagokion ekitaldian langileei ordaindutako nominen kopia.*

**Hamairugarrena.-** Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Aiarako Udalak zentroa erabili ahal izango dute jarduerak egiteko, aldeztu aurretik Alday Ongintzako Fundazioari jakinarazten badiote. Hauek ezingo diote uko egin, eskatutako erabilera instalazioetan egiten duten lanarekin bateragarria ez bada behintzat, bai Eguneko Arretarako Landa Zentroan eta bai alboko Zaharren Egoitzan.

**Hamalagarrena.-** Alday Ongintzako Fundazioaren erantzukizuna izango dira hitzarmen hau gauzatzearen betebeharrak betetzetik zuzenean edo zeharka eratorritako gorabeherak, edozein motatakoak direla ere, betiere bere kudeaketari edo funtzionamenduari egozteko moduko jarduerengatik bada. Inola ere ez da erantzungo ezinbesteko kasuetan, ustekabeetan edo hirugarrenek egindakoetan; ondorio horietarako, ez ditu bere gain hartuko egunero pertsonak garraiatzean sor daitezkeen kalteak, horretarako dagoen garraioan, beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzua.

Gorabehera horietako edozein ardura saihesteko, Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa eta betebeharra du aseguru-poliza bat sinatzeko eta ordaintzeko, hitzarmena gauzatetik erator daitezkeen balizko erantzukizunak betetzeko; horretarako, hitzarmen hau sinatzeko, eta balizko luzapenentarako, aipatutako poliza eta dagokion ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**Hamabosgarrena.-** Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondorioak izango ditu 2021eko abenduaren 31ra arte. Aurrekoa gorabehera, eta zerbitzuak jarraitzeko aurreikuspenaren arabera, hitzarmena amaitutakoan, 2022rako zerbitzua emateari buruzko ebazpenik ez dagoelako beharrezkoa bada, hitzarmena luzatu egingo da, eta aipatutako erabakia hartu arte behar besteko denboran.





**Hamaseigarrena.-** *I. eranskinean datu pertsonalen tratamenduari buruz ezarritako irizpideak bete beharko dira.*

**Hamazazpigarrena.-** *Hitzarmen hau baliogabetzeko kausa izango da bi aldeek adostea, funtsezko klausulak ez betetzea; hau da, Alday fundazioak gizarte-laguntza ez ematea edo gaizki ematea, edo Udalak ordaindu beharreko kopuruak bost hilabete baino gehiagoz ez ordaintzea.*

**Hemezortzigarrena.-** *Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede den programen publizitatean Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren eta Aiara-Ayalako Udalaren lankidetzara jasotzeko. Ildo beretik, Aiara-Ayalako Udalak, arreta-zerbitzua zentroan argitaratzen duenean, Alday Ongintzako Fundazioak egiten duen laguntza-lana adieraziko du, eta Arabako Foru Aldundiari eskatuko dio, halaber, jarduera horri buruz Aiararako egiten duen publizitatean aintzat har dezala.*

*Komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztiak, Hitzarmen honekin lotura badute, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiara-Ayalako Udalaren alde aurreko jakinarazpena beharko dute, eta bere irudi korporatiboarekin lotuta haiek ezarritako adierazpenei lotuko zaizkie; horrez gain, gizonen eta emakumeen hizkera inklusiboa erabili beharko dute, eta sexua gorabehera pertsonak giza duintasunean berdina direla erakusten duten irudiak.*

*Era berean, edozein ekitaldi publiko edo pribatu antolatzean (datak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, etab.), aurkezpenak, sari-banaketak, itxierak eta antzekoak, deitu aurretik adostuko dira, eta Aiara-Ayalako Udalaren eta Aldundiaren onspena eduki beharko dute. Edonola ere, ekitaldi horietako presidentetza eta presentzia Hitzarmen honen sinatzaileentzat gordeta dago, baita Arabako Foru Aldundiarentzat ere, eta AFAREN Protokoloa eta Harreman Publikoen zerbitzuak arautuko du.*

*Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, agiri honen bi ale sinatu dira Arespalditzan.*

**ALKATE-UDALBURUA.-** *Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

**IDAZKARIA.-** *Sin.: Naiara Lazpita Marcos.*

*Alkate-udalburua eta idazkaria, elektronikoki sinatua.*

**FUNDAZIOKO PRESIDENTEA,**

*Sin.: José Ramón González Mendia.*



## **I. ERANSKINA**

### **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAK**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOA datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiaren mende egongo da, eta, bereziki, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren mende, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.*

#### **Tratamenduko enkarguaren xedea**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOak tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, tratamenduaren arduraduna den AIARA-AYALAKo Udalaren kontura, hitzarmenaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzeko.*

#### **Eragindako informazioaren identifikazioa**

*Hitzarmenaren xedea betetzearen ondoriozko prestazioak gauzatzeko, AIARA-UDALEKO UDALAK tratamendu-arduraduna den ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAren esku jarriko du datu pertsonalak tratatzeko dagozkion ataletan deskribatzen den informazioa.*

#### **Iraupena**

*Klausula honetan adierazitakoa indarrean egongo da harreman lotesleak irauten duen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren urteetan. Hori guztia, tratamendu-arduradunaren zerbitzura dauden datuak eta informazioa berrikusteko eta egiaztatzeko egokitzat jotzen diren aldizkako berrikuspenak alde batera utzi gabe.*

*Harreman hori amaitutakoan, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOak datuak ezabatu beharko ditu, tratamendu-arduradunaren betebeharrari buruzko hurrengo atalean aurreikusitakoaren arabera, eta, nolana ere, ezin izango du kopiarik gorde, AIARA-UDALEKO UDALAK berariazko baimena eman ezean.*

#### **Tratamendu-arduradunaren betebeharrak**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOak eta, bidezkoa bada, bere ardurapeko langileek betebeharrak izango dituzte:*



a) *Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak, edo horiek sartzeko jasotzen dituenak, agiri honen xede den helbururako bakarrik erabiltzea. Ezin izango ditu datuak bere helburuetarako erabili.*

b) *Datuak AIARA-UDALEKO UDALAREN jarraibideen arabera tratatzea.*

c) *AIARA-UDALEKO UDALAREN kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat idatziz jasotzea. Hauek jaso beharko ditu:*

- *ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN eta, bidezkoa bada, datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak.*
- *AIARA-AYALAKO UDALAREN kontura egindako tratamendu-kategoriak.*
- *Aplikatu behar izanez gero, segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak deskribatzea, honako hauei dagokienez:*
  - *Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea.*
  - *Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.*
  - *Gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berreskuratzeko gaitasuna.*
  - *Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzako en eraginkortasuna egiaztatzeke, ebaluatzeke eta balioesteko prozesu erregularrak.*

d) *Lagapenak eta erabiltzaileen datuak: Oro har, ezin izango zaie daturik jakinarazi hirugarren pertsona edo erakundeei, ordezkaritza eta defentsa judizialaren eremuan hirugarren legimitatuek jakin behar duten informazioa izan ezik.*

e) *Azpikontratazioa: Debekatuta dago akordio honen xedea osatzen duten prestazioak azpikontratatzea.*

f) *Kontratazio-prozesu honen ondorioz eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gorde behar ditu, baita xedea amaitu ondoren ere.*

g) *Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea, eta AIARA-AYALAKO UDALAREN esku uztea betebehari hori betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.*



*h) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duen ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAk langileen datu pertsonalak babesteko behar duen prestakuntza bermatzea.*

*i) AIARA-AYALAKO UDALARI laguntzea laguntzea sarbide-, zuzentze-, ezabatze- eta aurkaratze- eskubideak baliatzen direla, tratamendua mugatzen dela, erabaki indibidualizatu automatizatuak hartzen ez direla (profilak egitea barne) eta, bidezkoa bada, eramangarritasuna bermatzeko. ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK arduradunaren datu-tratamenduei dagozkien eskubideak erabiltzeko eskaeraren bat jasotzen badu, gehienez ere 48 orduko epean jakinarazi beharko dio AIARA-AYALAKO UDALARI.*

*j) AIARA-AYALAKO UDALARI dagokio interesdunei informazioa emateko eskubidea erraztea, eta, beraz, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK ez ditu bere informazio-ereduak aurkeztuko. Nolanahi, ere, AIARA-AYALAKO UDALAK emandakoetara joko du, edo datuak biltzeko edozein bitarteko edo kanaletan sartu behar izanez gero, eskatu egingo du.*

*k) Datuen segurtasun-arrakalak jakinaraztea: ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK AIARAKO UDALARI jakinaraziko dizkio, beharrezko luzapenik gabe, eta, bidezkoa bada, 24 ordu baino lehen, mezu elektronikoki bidez hitzarmenaren helburuak egikaritzeaz eta gainbegiratzear arduratzen denari jakin dituen datu pertsonalen segurtasunaren hausteak, baita gorabeheraren dokumentaziorako eta komunikaziorako garrantzizkoa den informazio guztia (zehazki, gorabeheraren deskribapena eta balizko ondorioak, kaltetutako pertsonen maila eta kopurua, gorabehera leheneratzeko eta arintzeko hartutako neurriak).*

*Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango hauste hori ez bada pertsona fisikoen eskubideen eta askatasunen arriskua.*

*l) AIARAKO UDALARI laguntza ematea, bidezkoa bada, datuen babesaren inpaktuari buruzko ebaluazioak egiteko.*

*m) AIARAKO UDALARI laguntza ematea, bidezkoa bada, kontrol-agintaritzaren aurretiazko kontsultak egiteko.*

*n) AIARAKO UDALAREN esku jartzea beharrezko bere betebeharrak betetzen dituela erakusteko informazio guztia, baita AIARAKO UDALAK edo berak baimendutako beste auditore batek egindako auditoretzak edo azterketak egiteko ere.*

*o) Tratatze sistemak eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, integritatea, eskuragarritasuna eta erresilientzia egonkorra bermatzen duten segurtasun-neurriak ezartzea. Halaber, modu azkarrean datu pertsonaletarako eskuragarritasuna eta sarbidea berrezartzea ahalbidetzen dutenak gorabehera fisikoa edo teknikoa egonez gero; tratatzearen segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzazkoen eraginkortasuna erregularri frogatzea, ebaluatzea eta baloratzea ahalbidetzen dutenak. Beste neurririk hartzeko kalterik gabe, onartutako estandarrekin*



*bat etorrita, argibideen bidez alderdien artean ezarri edo adostu daitezke eta, gainera, horretarako ziurtagirien eta egiaztagirien bidez frogatu daitezke.*

*p) Datuen helburua: ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK AIARAKO UDALARI datu pertsonalak itzuli behar dizkio eta, bidezkoa bada, ematea bete eta gero, horretarako erabilitako euskarriak. Itzultzean ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK erabilitako informatika-ekipamenduetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu behar dira.*

### **Zerbitzarien kokapenari buruzko betebeharrak espezifikoak**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK dio bere zerbitzariak Europar Batasunaren barruan egongo direla; bertatik horri lotutako zerbitzuak emango dira. Bestalde, adierazi du hitzarmenaren bizitzan zehar sortzen den adierazpen honen edozein aldaketa komunikatzeko konpromisoa.*

### **Tratatzeako argibideak**

*AIARAKO UDALAK datu pertsonalak tratatzeari lotuta honako argibide hauek igorri ditu; ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK TRATATZEKO ERAGILEAREN funtzioak eta betebeharrak bere gain hartuko ditu honako xehetasun hauekin:*

### **Kolektiboak**

*Erakunde adjudikatzaileak sarbidea duen interesdunen kolektiboak eta tratatuko datu pertsonalak honakoak dira:*

<b>INTERESATUTAKO PERTSONEN MAILA</b>
<input type="checkbox"/> EGOILIARRAK

### **Tratatutako datuak**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK honako informazio pertsonal hau trata dezake:*

<b>Sar daitezkeen tratatzeako datu pertsonalak:</b>
<input type="checkbox"/> NAN/IFZ/NIE/ PASAPORTE-ZENBAKIA



- IZENA*
- ABIZENAK*
- POSTA-HELBIDEA*
- HELBIDE ELEKTRONIKOA*
- TELEFONOA*
- SINADURA*
- SEXUA*
- NAZIONALITATEA*
- JAIOTERRIA*
- JAIOTEGUNA*
- ADINA*
- EGOERA ZIBILA*
- EZAUGARRI PERTSONALAK (GARAIERA, PISUA, NEURRIA, BESTEAK BESTE)*
- EKONOMIKOAK, FINANTZAKOAK ETA ASEGURUENAK (BANKU-DATUAK, KONTU KORRONTEA, TXARTEL-ZENBAKIA, TRIBUTU, SOLDATA, SUBSIDIOEI BURUZKO DATUAK, BESTEAK BESTE)*
- DATUEN KATEGORIA BEREZIAK*
  - OSASUN-DATUAK*

### ***Tratatzeko elementuak***

*Tratatzearen arduradunak datu pertsonalei lotuta zein eragiketa egingo duen adieraztea.*

<b><i>TRATATZEKO ERAGIKETAK</i></b>
-------------------------------------

- |   |
|---|
| <input type="checkbox"/> <i>Bilketa (datu-eskuratzea)</i> |
|---|





- Erregistroa (grabaketa)
- Egituratzeta
- Aldatzea
- Gordetzea (biltegiratzea)
- Kontsultatzea
- Lagatzea
- Zabaltzea
- Ezabatzea
- Segurtasun-kopia
- Berreskuratzea

### **Segurtasun-neurriak**

*Ezarriko diren beharrezko segurtasun-neurriak AIARAKO UDALAREN Segurtasun Politikan jasota daudenak izango dira, urtarrilaren 8ko Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin batera”.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburua gaitzea hitzarmen hori sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hori Alday Ongintzako Fundazioari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sinatzeko.

### **3.- Onestea, bidezkoa bada, 2021erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren bigarren aldaketa.**

Udalbatzari kontu eman zaio puntu honi dagokion 2021eko abenduaren 14ko Kontuen Batzorde Bereziaren eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko eta Barne Araubideko Batzordearen aldeko irizpena.



Ez da iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 9).

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** 2021 ekitaldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2021eko apirilaren 22ko osoko bilkuraren erabaki bidez onetsi zen, 2021erako Udalaren Aurrekontu Orokorren eranskin gisa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Plan Estrategiko horren I. eranskinean kultura- eta kirol-arloaren dirulaguntza-jarduera zehazten da.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aiarako Udalaren udal-interes publikoa udalerriko Ondare Historiko Artistikoa gordetzeko eta birgaitzeko.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuta (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 9), **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (kultura- eta kirol-arloaren dirulaguntza-jarduera) aldatzea. Eranskin horretan honako erakunde edo pertsoneri dirulaguntza zuzena egingo zaiela gehituko da:

- Lantenoko Administrazio Batzarrari dirulaguntza zuzena “Lantenoko eskoletan bi arbel historiko berritzeko proiektua” obra egiteko, zenbatekoa 398,00 euro eta 2021erako Udal Aurrekontuko **336.734.002** aurrekontu-aplikazioan kobratuko da, aurrekontuaren aldaketaren arabera, kreditu-transferentzia bidez.

**4.-Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Lantenoko Administrazio Batzarraren arteko lankidetzeta-hitzarmena “Lantenoko eskoletan bi pieza historiko berritzeko proiektua” obra egiteko; horretarako dirulaguntza zuzena emango da.**

Udalbatzari kontu eman zaio puntu honi dagokion 2021eko abenduaren 14ko Kontuen Batzorde Bereziaren eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko eta Barne Araubideko Batzordearen aldeko irizpena.

Ez da iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 9).

Hori dela bide,



**IKUSI DA.-** Lantenoko Administrazio Batzarra Lantenoko eskolako bi arbel historiko berritzeko obra aurrera eramaten ari da.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak Aiara udalerrriaren ondare historiko artistikoa mantentzen, gordetzen eta berritzen laguntzeko duen interesa.

**IKUSI DA.-** 2021eko abenduaren 14ko Kontuen Batzorde Bereziaren eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko eta Barne Araubideko Batzordearen aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2021erako udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dago hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Udalbatza Osoak aho batez honako hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Lantenoko Administrazio Batzarraren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea “Lantenoko eskoletan bi arbel historiko berritzeko proiektua” obra egiteko. Honako hau dio:

**“LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN ETA AIARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA “LANTENOKO ESKOLETAN BI ARBEL HISTORIKO BERRITZEKO PROIEKTUA” OBRA EGITEKO”**

*Arespalditzan, 2021eko abenduaren (e)(a)n.*

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

*Alde batetik, **GENTZA ALAMILLO UDAETA**, adinez nagusia, Aiarako Udaleko alkate-udalburu jauna, Aiarako Udaleko Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak lagunduta, dena ziurtatzeko.*

*Beste aldetik, **IRATXE PARRO UZQUIANO** and., adinez nagusia, **LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN** errejidore-batzarburu gisa.*

**PARTE HARTZEN DUTE**



*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkaritza, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.*

*Bigarrena, tokiko erakundea den Lantenoko Administrazio Batzarraren izenean, martxoaren 20ko Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzko 11/1995 Foru Arauaren oinarriaren arabera gaituta eta ahaldunduta (1995eko martxoaren 31ko ALHAO, 38 zk.).*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **LANKIDETZA HITZARMEN** hau egiteko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENENGOA.** - **LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** Lantenoko eskolaren jabea da. Eskola 1897an eraiki zen Lanteno herriarentzako fundazio gisa. 1961ean Amurrioko Jabetzaren Erregistroan inskribatu zen, Lantenoko herriaren izenean. 1969an itxi zen, ordutik ikasleak Artziniegako eskolara joan ziren. Egun herriko kultura-elkarte gehienen egoitza da. Eraikinak estilo eklektikoa du, gorputz nagusia du eta itsatsitako bi atal. Oin nagusia du, bertara fatxada nagusian dauden aldapa simetriko bitatik sartzen da, eta etxebizitzetara bideratutako beste solairu bat dago. Gorputz zentrolean beste solairu bat dago estalkia baino lehenago. Gorputz zentralaren estalkian erlojua ageri da, egun funtzionatzen du. Lehenengo solairuan eskolak daude, gorputz zentrala jolastokia da, eta alboko atalak mutilen eta nesken gelak, hurrenez hurren.

**BIGARRENA.** - **LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** eskola horretako bi arbel historiko berritzen ari da.

*Altzariek, arbel gisa, bi oin dituzte euskarri eta altueran giltzez itxitako bi ate dituen kutxa bat dute. Konifero-egurrez eginda daude, jatorrian badirudi ez daudela bernizatuta, soilik linazi moduko olioren batekin babestuta. Apaindura soila da, atea sortzen dituzten panelen moldurak eta pinakulu gisa biribildutako gezi-itxuran amaitutako alboak markatzen dira.*

**HIRUGARRENA.** - **LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** obra honako finantza-plan honekin egiten ari da:

**BERRITZEAREN KOSTU OSOA:** 3.980,90 euro.

*Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza:* 3.184,72 €

*Hitzarmen horren bidez Aiarako Udalaren dirulaguntza:* 398 €

*Lantenoko Administrazio Batzarraren funts propioak:* 398 €

**LAUGARRENA.** - *Inbertsio hori 2021eko abenduaren 31n amaitu behar da.*



*Aiarako Udalaren interesa da da udalerrri osoko ondare historiko artistikoa gordetzen laguntzea, alde biak honako hitzarmenak adostu dituzte:*

### **LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea**

*Hitzarmen honen xedea da **AIARAKO UDALAREN** eta **LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN** arteko lankidetzaren formalizazioa, Lantenoko eskolako bi arbel historiko berritzeko obra egiteko. Esku-hartzea materialak finkatzea eta zatiak bere lekuan birjartzea da, ahal den neurrian, gutxieneko funtzionaltasuna eta egonkortasuna itzultzeko. Horretarako, jatorrizko materialak mantentzen ahaleginduko dira, hala nola arbel-koloreko ehuna, elementuari garrantzia itzultzeko ezinbesteko zatiak eraikiko dira.*

### **BIGARRENA.-**

***AIARAKO UDALAK** garatuko duen sustapen-jardueraren edukia 2021 ekitaldian zehar berritze obra horrek dakartzan gastuen zati txiki baten dirulaguntzan zehazten da.*

### **HIRUGARRENA.-**

***LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** obra honen kontratazioaren eta gauzatzearen arduradun sustatzailea da, 2021eko abenduaren 31n amaituta egon behar du. Hitzarmen hau sinatuta Administrazio Batzar honek adierazten du bete duela azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.*

*2021erako lankidetzaren hitzarmen horri dagokion udal-dirulaguntza hirurehun eta laurogeita hemezortzi eurokoa da (398,00 €).*

### **LAUGARRENA.-**

*Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da:*

- Aiarako Udalak Lantenoko Administrazio Batzarrari % 100ean ordainduko dio emandako dirulaguntza. Hitzarmen honetako **BOSGARREN KLAUSULA**n jasotako dokumentazioa aurkezten duenean, eta funtsen helbururako behar bezala justifikatzen duenean.*



**Ordainketa egin baino lehen,** Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo, hori izan ezean, Udalak dagozkion erakundeei informazio hori eskatu ahal izateko baimena izango du.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egokitzat jotzen duen informazio oro.

### **BOSGARRENA.-**

**DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA** Aiarako Udalean aurkeztu beharko da, gehienez ere, **2022ko urtarrilaren 31n**, nahiz eta gastuak dirulaguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen eman behar diren, hau da, 2021. urtea amaitu baino lehen.

Adierazitako epean eskatutako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ezean, dirulaguntza baliogabetu egingo da eta aurretiaz emandako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Jasotako dirulaguntza guztien adierazpena, erakunde publiko zein pribatuenak izan, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.
- b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen egiaztagiria aurkeztu, edo, hori izan ezean, Udalak dagozkion erakundeei informazio hori eskatu ahal izateko baimena.
- c) Jardueraren garapenari buruzko honako dokumentu hauek:
  - Egindako jarduerari buruzko memoria.
  - Jardueraren gastu eta diru-sarreraren balantzea, erakunde publiko eta pribatuek eman ditzaketen dirulaguntzak barne hartuta. Gainfinantzaketa egotekotan, dirulaguntza dagokion zenbatekoan murriztuko da.
    - Gainerako gastuak: justifikazio fakturak, horiek igortzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenak. Faktura bakoitzari dagokion ordainketa ziurtagiria atxiki beharko da.

### **SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena**

Hitzarmena 2021eko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

### **ZAZPIGARRENA.-**





**LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK** egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko du.

**ZORTZIGARRENA.-**

**LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK** hitzarmen honetan jasotako betebeharrak gauzatzeko ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten lau orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematen dute berarekin beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

*ALKATE-UDALBURUA GENTZA ALAMILLO UDAETA*

*LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN ERREJIDORE-BATZARBURUA.- Sin.: Iratxe Parro Uzquiano.*

*AIARAKO UDALEKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.: Naira Lazpita Marcos*  
*Elektronikoki sinatutako dokumentua.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburua gaitzea hitzarmen hori sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea Lantenoko Administrazio Batzarrari, Hitzarmena sinatu dezan.

**Hemezortziak eta zazpi minutu direnean Karmele Población Martínez zinegotzi-andrea Bilkuren Aretora sartu da.**

**5.- Ebaztea, bidezkoa bada, 7/2021 zenbakidun kreditu gehigarriaren espedienteari jarritako erreklamazioa.**



Udalbatzari kontu eman zaio puntu honi dagokion 2021eko abenduaren 14ko Kontuen Batzorde Bereziaren eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko eta Barne Araubideko Batzordearen aldeko irizpena.

Ez da iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 10).

IKUSI DA.- 2021eko azaroaren 18an Udalbatza Osoak hasiera batean onetsi zuen 7/2021 kreditu gehigarriaren espedientea; horren iragarkia azaroaren 29ko ALHAOren 136. zenbakian argitaratu zen.

IKUSI DA.- Jendaurrean egon den epean Pablo Javier Imaz Isasi jaunak sinatutako erreklamazioa aurkeztu du (2021eko abenduaren 10ean 4.535 sarrera-erregistroa). Honako hau dio hitzez hitz:

*“341.481.012 partida, Euskadi Cross txapelketarako Iñaki Isasi Taldeari dirulaguntza zuzena, 4.000 € ez da nahikoa. Kirol-ekitaldia egiteko gastuak 5.510,40 € dira”.*

AINTZAT HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzailearen 2021eko abenduaren 13ko txostena, eta aurkeztutako alegazioa ezesten da.

Udalbatzak, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Pablo Javier Imaz Isasi jaunak aurkeztutako erreklamazioa ezestea (2021eko abenduaren 10eko 4535 sarrera-erregistroa) justifikazioa falta zaiolako eta bilkura subiranoa delako elkarte bati eman beharreko dirulaguntza zuzenaren zenbatekoa zehazteko; erabaki politikoa da 2021eko abenduaren 13ko idazkari kontu-hartzailearen txostenean jasotako baldintzen arabera (espedientean dago).

Espedientea behin betikotzat joko da jendaurrean dagoen epean ez bada beste alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten.

BIGARRENA.- Interesdunari erabaki horren berri ematea, 2021eko abenduaren 13ko idazkari kontu-hartzailearen txostenaren kopiarekin batera.

**6.- Ebaztea, bidezkoa bada, babestutako ondasunen udal-katalogoaren espedientea, bertatik kanporatzeko Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikina eta aurri-egoeran deklaratzeara.**



Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari babestutako ondasunen udal-katalogoaren aldaketa-espedientearen erabaki-proposamenaren berri eman zaio, bertatik kanporatzeko Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikina eta aurri-egoeran deklaratzeari buruzkoa.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) hitza hartu du esateko bere taldea abstenituko dela, aurrekoetan adierazi duten moduan, uste dutelako Udalak zerbait egin beharko lukeela ondarea mantentzeko.

Ez denez gaiaren inguruko ezer gehiagorik esan, gaia bozkatu da, eta honakoa izan da emaitza:

**ALDEKO BOTOAK: 8 (7 EAJ-PNV, 1 AIARA BATUZ)**

**ABSTENTZIOAK: 2 EH-BILDU**

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** 2021eko uztailaren 22ko Udalbatzaren erabakia, Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikinaren aurri-deklarazioa hasteko Aiarako 5. poligonoko katastroko 2417. partzelan. Ulertzen da aurriaren legezko egoera justifikatu dela ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 201.1 artikulua arabera eta 199.2 artikuluaekin lotuta, eta espedientea abiaraziko da udal-katalogoa aldatzeko eta bertatik eraikina kanporatzeko (360 zk. du katalogoan).

**IKUSI DA.-** Erabakia jabetzari jakinarazi zitzaion, jendaurrean jarri zen 2021eko abuztuaren 9ko ALHA Oren 89. zenbakian argitaratuta, eta AFAn Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzari txostena eskatu zitzaion, hurrenez hurren irailaren 8an eta 21ean igorri zituzten.



**IKUSI DA.-** Jendaurrean jartzeko epea igaro da eta ez da alegazioen idatzirik aurkeztu.

**IKUSI DA.-** EAEko Kultura Ondarearen Zentroaren txostena, ondorioztatzen du higiezina ez dagoela EAEko Kultura Ondarearen erregistroan; hortaz, ezin dira aplikatu Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen aurri- eta desfektazio-adierazpenaren prozedurak. hirigintza-araudiaren arabera Udalari soilik dagokio aurri-egoeran legez deklaratzeari; jabetzaren eta udal-zerbitzu teknikoaren txosten tekniko bakoitzean ondorioztatu da behar bezala justifikatuta dagoela Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 199.2 eta 201. artikuluen arabera. Ondasun bat ez da deskatalogatuko soilik hirigintza- ala ekonomia-arrazoiak edo arrazoi teknikoak direla bide, baizik eta udal-babesa emateko mereziduna egin zuten ondare-balioak galtzen dituelako. Hala ere, nahiz eta mantentzeko egoera urria deklaratu, katalogoan mantenduko da.

**IKUSI DA.-** Arabako Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritzaren txostena; bertan esaten du aurri ekonomikoaren egoera ziurtatuta dagoela, eta uste du egokia dela higiezinak udal-katalogoan jarraitzea, higiezinan oraindik gordetzen diren zatiak aipatzen ditu.

**IKUSI DA.-** Abenduaren 20ko udal-zerbitzu teknikoaren txostena. Horren bidez adierazten da eraikina legez aurri-egoeran dagoela, EAELHLren 199.2 artikuluari buruz 201. artikulua xedatutakoaren babesean. Aurri-egoera fisikoa berreskurazina da, egiturazko elementuak agortuta baitaude eta % 60aren eta konponketaren kostu guztiaren mugaren arteko aldea estaltzeko laguntza ekonomikorik ez baitago. Hala, udal-babesetik deskatalogatzea bidezkoa da, eta honako hau ondorioztatzen da:

- Higiezina legez aurri-egoeran deklaratzeari aldekoa da, konpontzeko kostuak jabeen legezko kontserbazio-eskakizunaren kostua gainditzen baitu eta egiturazko elementuak agortuta daudenez, eraikina aurri-egoera fisiko berreskurazinean baitago.
- Ez dago laguntza ekonomikorik eta, gainera, ez du balio arkitektoniko, historiko edo artistiko aipagarriarik edo berezirik, beraz, bidezkoa da ondasun hau udal-katalogotik ateratzea.

**IKUSI DA.-** Amurrioko Jabetzaren Erregistroko ohar soilak aurkeztu dela, eta ziurtatzen da erregistroko titularra aurri-deklarazioaren eskatzailea dela eta eraikinean ez dela biztanlerik ez okupatzailerik ageri.

**IKUSI DA.-** Legezko aurre-egoera justifikatu dela, EAELHLren 199.2 artikuluari buruz 201.1 artikulua xedatutakoaren babesean, kalteak konpontzeko kostuak higiezina zaharberritzeko



egungo balioaren % 60 gainditzen baitu, horrenbestez, eraikinaren egitura ziurtatu eta sendotzeko konponketaren kostuak ohiko kontserbazio-eskakizunaren muga gainditzen du.

**IKUSI DA.-** Eraikina ezin daitekeela eraitsi Arau Subsidiarioek katalogatuta duten bitartean, beraz, segurtasun-baldintzak bermatzeko eraitsi ahal izango da legez aurre-egoeran deklaratzeko bada bakarrik eta, horretarako, alde aurretik deskatalogatzea ezinbestekoa da.

**IKUSI DA.-** Justifikatuta dagoela eraikina udal-katalogotik ateratzea, udal-zerbitzu teknikoaren txostenaren arabera, egitura-elementuak agortuta daudenez, aurre-egoera fisiko berreskurazinean baitago. Egungo kontserbazio-egoera dela-eta, elementu formalak eta tipologikoak galdu ditu. Horrez gain, ez dago laguntza ekonomikorik eta ez du balio arkitektoniko, historiko edo artistiko aipagarriarik.

**AINTZAT HARTU DA.-** Euskal Autonomia Erkidego Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 100., 199.2, 201., 207. artikuluei eta haiekin bat datozei buruz indarreko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen (2005eko otsailaren 17ko ALHAO, 20. zk.) 221.3 artikulua eta Tokiko Udalbatzen Toki Araubideari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluek xedatutakoa.

Udalbatzak, gehiago osoz, honakoa **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Udal-katalogoa aldatzeko espedientea ebatzea eta Kexaako Ibaguen auzoan 10. zenbakia duen eraikina (630 zk. katalogoan) kentzea, legez aurre-egoeran baitago. Aurre-egoera fisikoa itzulezina da, egiturazko elementuak agortuta daude, ez dago laguntza ekonomikorik eta ez du balio arkitektoniko, historiko edo artistiko aipagarriarik edo berezirik.

Iragarkia ALHAOn argitaratzea, eta Kexaako Ibaguen auzoan 10. zenbakia duen eraikina udal-katalogotik kentzearen berri ematea, orokorrean ezagut dadin. Halaber, erabaki hau Arabako lurralde historikoko hirigintza-plangintzako erregistroari helaraziko zaio, katalogotik ateratzearen kontu emateko.

Era berean, erabaki hau Aiarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren lantalde idazleari jakinaraztea, eraikina katalogotik kendu dela ezagut dezaten.

**Bigarrena.-** Kexaako Ibaguen auzoan 10. zenbakia duen eraikina aurre-egoeran deklaratzeko, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (EAELHL) 199.2 artikuluari buruz 201.1 artikulua xedatutakoaren babesean eta bere jabeari erabaki hau jakinarazten den unetik zenbatzen hasita HILABETE BAT ematea, pertsonengan eta ondasunetan kalteak saihesteko neurriak har ditzan eta udal-katalogotik kentzen denean, eraispen-proiektua edo eraikina oso-osorik birgaitzeko



proiektua aurkez dezan. Hori bere aukera da, baina bi kasuetan teknikari eskudunak idatzi eta bere elkargo ofizialak ontzat emango du.

Ohartaraziko zaio emandako epean, udal-lizentzia eskatuta, eraispen- edo birgaitze-proiekturik aurkezten ez badu, eraistea aginduko dela eta hamar isun hertsagarri jarri ahalko direla hileko aldizkakotasunez. Bakoitza 600 eurokoa izango da, eta azkeneko isun hertsagarriaren ondoren borondatez betetzeko epea igaro ondoren, Udalak nahitaezko betearazpena jotzeko ahalmena izango du jabetzaren ondorearen kargura eta premiamenduaren bidea erabili ahalko du. Hori guztia egin daiteke dagozkion zehapenen kalterik gabe.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau jabetzari jakinaraztea eta horren aurka hilabeteko epean Udaltzatza honen aurrean aukeran berraztertzeko errekurtsioa jar dezakeela adieraztea. Bestela, bi hilabeteren buruan zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezake Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean.

#### **7.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea.**

Jarraian, Udaltzatza jakinarazi zaizkio 2021/669 eta 2021/722 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/669.- I.A.O.- Udal-artxiboko dokumentuetara eta espedienteetara sarbidea eta horien kontsulta baimentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/670.- Azaroaren 15etik 17ra ez dagoelako alkatearen zereginak eskuordetzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/671.- C.I.C.- Udal-artxiboko dokumentuetara eta espedienteetara sarbidea eta horien kontsulta baimentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/672.- Amor Misericordioso ikastetxea. 2021eko hitzarmenaren arabera emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/673.- Alkateak kreditua gaitzeko 4/2021 zenbakiko espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/674.-GSTIONA KUDEAKETA SL- Udal-bulegoen eraikineko 2. solairuan bulegoak birbanatzeko obra adjudikatzea.





ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/675.- E.H.L.- Izoriako etxebizitzan autokontsumoko instalazio fotovoltaikorako udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/676.- J.C.S.L.- Arespalditzan eta Luiaondon bizikleta-garbigailua eraikitzeke obraren kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/677.- Madariako Administrazio Batzarra.- Madarian hobi septikoa berritzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/678.- S.U.Z. Minusbaliotasuna egiaztatzeagatik ibilgailuen udal-zergaren salbuespena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/679.- A.M.O.- Lantenoko etxebizitzan estalkia konpontzeko obra-lizentzia emate aldera dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/680.- J.C.B.- Murgako partzelan berotegiak aldatzeko obra-lizentzia emate aldera dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/681.- MA. A.G.- Baja dela-eta, 2021eko ibilgailuen zerga itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/682.- Jesús Soler Lorent.- Datuak babesteko delegatua izendatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/683.- Berganza SC- Kexaan zolata konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/684.-F.A.D.- Etxegoingo Administrazio Batzarrari Etxegoienen ur-horniduraren sarea aldatzeko obrari buruzko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/685.- P.M.L.R.- Zuhatzan etxebizitzako estalkian teila aldatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/686.- L.S.R.- Luiaondoko etxebizitzan sukaldea eta bainugela berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/687.- 2021eko EEPa onestea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/688.- 2021eko obrak egikaritzeko gastuetarako eta teknikarien ordainsarietarako administrazio-batzarretarako dirulaguntzen oinarriak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/689.- Aiarako Kuadrilla.- HHSak kudeatzeko gastuetarako ekarpen ekonomikoa, 2021eko laugarren hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/690.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Izoriako Aretxa auzoan hiriko sareak eta zoladura berritzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/691.- I.C.M. Ibilgailuari behin betiko baja emateagatik 2021eko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/692.- Langileen eta alkatearen nominen hileko txostena onestea, 2021eko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/693.- Udaleko alderdi politikoei ekarpen ekonomikoa, 2021eko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/694.- J.G.M.- Luitaondon I. fasean bi familientzako etxebizitza eraikitzeke obraren hasierako baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/695.- Zabor-bilketaren tasari buruzko errolda fiskala onestea, 2021.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/696.- 2021/609 A/Da transkribatzean izandako akatsa zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/697.- J.L.A.I.- 101764-152 zenbakiko aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/698.-SISCA SEÑALIZACIONES SL- Murgako industriagunean margotu eta seinalezatzeko obraren kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/699.- F.P.G.- 101763-93 zenbakiko aparkatzeko txartela iraungitzeagatik berritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/700.- Alkatetzak 2/2021 kreditu-transferentzia onestea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/701.- Alkatetzak 3/2021 kreditu-transferentzia onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/702.- J.G.M.- Luitaondon etxebizitza eraikitze aldera obra hasteko baimenari buruzko 2021/694 Alkatetzaren Dekretuan akats materiala zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/703.- Life Urban Klima 2050 proiektuaren barruan zuhaitzak landatzeko Arabako Foru Aldundiari baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/704.- Kreditu-zuzkidura globalari buruzko 4/2021 kreditu-transferentzia onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/705.- Udalkideei ekarpen ekonomikoa, 2021eko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/706.- J.F.L.O.- Murgan etxebizitzako estalkia konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/707.- A.A.H.- Zuhatzako etxebizitzan teila eta erretena aldatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/708.- F/2021/12 erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/709.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidazio-fakturaren ordainketa onestea, 2021eko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/710.- Gizarte Segurantzaren DN. 2021eko urriko kuotaren ekarpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/711.- Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkartea. Lantalde psikopedagogikoaren eta bi urteko ikasgelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2021eko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/712.- Agiñagako Administrazio Batzarra.- Agiñagako udalerrira sartzeko kalean zolatze-obrarako udalaren obra-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/713.- Menoioko Administrazio Batzarra.- Menoioko hirigunean zoladura eta zerbitzuak eraberritzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/714.- A.E.G.- Zuhatzan baserria berritze aldera obraren lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/715.- A.E.G.- Zuhatzan baserria berritzeko obran hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/716.- L.A.V.- Zuhatzako Zerrabe auzoko 40 zenbakia duen etxebizitzan ingurua drainatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/717.- Menagarai-Beotegi bideko jabeen erkidegoa.- Horma konpontzeko obraren lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/718.- Erbiko Administrazio Batzarra.- Erbin urbanaketaren sarea berritzeko obran hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/719.- I.L.B- Izorian baserriaren birgaitze-obran lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea eta hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/720.- J.M.A.- Erbiko etxebizitzan instalazio fotovoltaikorako udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/721.- MA.P.Z.- Menagaraiko etxebizitzan instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/722.- D.M.A. – Madariako baserrian obrak egikaritzeko errekerimendua.

Ez dagoenez horren inguruko iruzkinik, udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

### **8.- Eskaerak eta galderak.**

- Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hitza hartu du adierazteko Euskararen Erabilera Plana iritsi zaiola eta bere ustez dokumentu horrek mahaiaren gainean dagoeneko lau urte daramatzala. Zerbait eguneratu beharko litzateke, eta hausnarketa egitea proposatu du. Balantze bat egin beharko litzateke.



Hurrengo urtean plana amaitzen da, eta beste bat egin beharko da. Berak proposatutakoaren arabera, onena litzateke balantze bat egin eta horren gainean hausnartzen hastea. Gauza errazak daude, baina ezin daitezke egiten hasi. Pentsatzen hasi behar da nola aldatu Udaleko hizkuntza-paisaia. Adibidez, Udaletik bidaltzen den gehiena gaztelaniaz baino ez da bidaltzen.

- Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du berriz hitza adierazteko Laudioko hiltegiaren gaiari buruzko epaia eman dela eta informazioa nahi dute.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hartu du hitza, eta erantzun du oraindik ez duela epaia. Berriak egunkarietakoak dira, oraindik ez baita jarri Laudioko alkatearekin harremanetan.

Ez daki kontra egingo duten edo ez. Hausnartu beharko dute.

Karamele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du berriz hitza galdetzeko gaiari buruzko Kuadrillaren iritzia, plataformak gaia azaldu baitzien.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Kuadrilla osatzen duten udaletako alkateekin egindako bilera hartan hainbat gai jarri zituztela mahaiaren gainean. Zerbitzua mankomunatzea proposatu zuten. Baina horrek hausnarketa sakona egiteko eskatzen du. Ezin daiteke arinki erabaki, oso erabaki zaila baita. Erabaki hori hartzeko Laudioko Udalak, zerbitzuaren titularrak, baimendu beharko luke.

Amurrioko Udaleko ordezkariak komentatu zuen Urduñan proiektu pribatu oso txiki bat ezagutzen zuela. Hala, balora zitekeen eraikin paraleloan azpiegitura handiagoa egitea eta proiektu pribatu horrekin sinergiak partekatzea. Bi proposamen horiek daude mahaiaren gainean, baina sakonki hausnartzeko eskatzen dute.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu dio alkate jaunari Aiaran hainbeste abeltzain ukitu izanik, zergatik ez den Laudioko alkatearekin harremanetan jarri. Bere iritziz, interesgarria litzateke alkateak Laudioarekin hitz egitea gaiari buruz zer dakiten ezagutzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak erantzun du ez dakiela Laudio epaia jaso duten, baina denbora bat ematea nahiago izan dut hausnartu eta zer egin behar duten jakin dezaten.

- Karmele Población Martínez (EH BILBU) zinegotzi andreak hartu du hitza galdetzeko Garavillako espedienteari buruz. Gaia nola dagoen jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Udalak Eusko Jaurlaritzari bidali beharrekoa igorri diola eta haien eskumenekoa dela.



Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza galdetzeko ea ez duten ezer erantzun.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eransteko gai garrantzitsua dela, onak ez diren gauzak isurtzen baitira. Gauza arriskutsuak daudela ikusi da, beraz, Eusko Jaurlaritzari berriz eskatu behar zaio zerbait esateko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak esan du ez dakiela zer dagoen.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du laginketa batzuk egin ondoren, substantzia arriskutsuak atera direla. Beraz, ezin daiteke gaia baztertuta utzi. Eusko Jaurlaritzari behin eta berriz galdetzen jarraitu behar zaio erantzun arte.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du berriz ere galdetuko dutela eta espedientearen gainean egongo direla.

- Karmele Población Martínez (EH BILDU) andreak hartu du hitza adierazteko azaroaren 26an arazo bat izan zela eta Interneteko zerbitzurik gabe gelditu zirela. Teknikariak Udalera hurbiltzea gomendatu zien. Toki batzuetara ez da zuntza iristen eta azaldu du beste toki batzuetan, hala nola Artziniegan eta Urduñan, zuntza iristen ez zenez, Udalak mugitu direla eta azkenean iritsi dela.

Horregatik, Udalari eskatzen dio eskura duena egin dezan zuntza iriste aldera presionatzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak erantzun du harremanetan jarriko dela Artziniega eta Urduñako alkateekin nola egin duten jakiteko. Aldundiarekin hitz egingo da arazoa azaldu eta zuntza toki guztietara irits dadin eskatzeko. Baina eskatu baino ezin da egin, Udalak ezin dezake gehiago egin.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) andreak azaldu du, ziurrenik, ezinezkoa izango dela zuntza baserri guztietara iristea, baina, gutxienez, erreklamatu beharko litzateke aukera egokia izatea. Eta jakina da Udalak eskumenik ez duela, baina erreklamatzeko da galdetzea eta presionatzea ahalik eta zerbitzurik onena eskuratzeko.

- Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza galdetzeko Europako funtsei buruz. Lehenago egin zen galdera hau, baina ez du erantzunik izan.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du zegokion batzordean hitz egin zela. Eudelek informazioa bidali digu, baina oraingoz 5.000 biztanletik gorako udalentsako laguntza asko daude. Batzordean azaldu zen, ahal denean, laguntzak eskatuko direla abian ditugun hiru proiektuetarako:



- ⇒ Ikastolako berogailua.
- ⇒ Luiaondoko erabilera anitzeko instalazioaren goiko solairua egokitzea.
- ⇒ Ikastolan argiak aldatzeko programa.

Batzordeetara eramango da informazioa.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH BILBU) zinegotzi andreak hartu du hitza galdetzeko Bilduk eskatu ostean 2020ko aurrekontuan sartu ziren bi gairi buruz:

1. Murgako industrigunea birgaitzeko plan integrala.
2. Adinekoen beharrei buruzko azterketa.

Urte eta erdi pasa da, eta ez dakite gaiak nola dauden.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak hartu du hitza erantzuteko lehenengo gaiari buruz (Murgako industrigunea) zenbait enpresari gonbita bidali zitzaizela proiektua idazteko eta bakarra aurkeztu dela. Baina aurrekontu-partida ez zen nahikoa gastua onartzeko, eta aurrekontua aldatu behar da proiektua idazteko zerbitzua adjudikatzen aldera.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu du noiz iritsi den informazioa, ez baita ezer adierazi.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak erantzun du duela hiru hilabete inguru, baina mahaiaren gainean dagoen guztiarekin, zaila da guztiaren berri ematea.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du berriz ere hitza galdetzeko adinekoen beharren analisiari buruz, aipatu baitzen abendurako egina egongo zela eta egin gabe dago.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak erantzun du egin gabe dagoela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak komentatu du egoera ikusita, gaia presazkoa dela eta, horregatik, jakin nahi du nola dagoen, gobernu-taldeak haiekin hartutako konpromisoa baita.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak erantzun du abian jarriko dutela.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du berriz hitza galdetzeko duela ia bi urte Zorroza enpresan izandako zoritxarreko heriotzaren inguruan egin behar zen ekintzari buruz. Ez da ezer jakin egindakoari buruz edo zer egingo den.





Gentza Alamillo Udaeta (EAJ- PNV) alkate jaunak erantzun du batzorde batean aztertuko dela eta guztion artean landuko dela zer egin.

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako rabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hogeita hiruan.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.